# gaurko filmak

| | |
|---|---|
| **Romuald et Juliette** | ★★ |
| Zuz.: Coline Serreau. 110m. Fran. 1988. | **10:15 C+(f)** |
| **Este cura** | ● |
| Zuz.: Enrique Carreras. 86m. 1967. | **12:00 TVE1** |
| **Siete pistolas para Timothy** | ★ |
| Zuz.: Romulo Girolami. 84m. 1966. | **18:25 ETB2** |
| **Battlefield Earth** | ★ |
| Zuz.: Roger Christian. 120m. AEB. 1999 | **21:00 C+(f)** |
| **El perro sargento** | ★ |
| Zuz.: Aaron Norris. 86m. 1995. | **21:45 ETB2** |
| **Cocodrilo Dundee II** | ★ |
| Zuz.: John Cornell. 105m. AEB. 1998. | **22:00 T5** |
| **Salto al vacio** | ★★★ |
| Zuz.: Daniel Calparsoro. 100m. 1994. | **22:35 La2** |
| **Las seductoras** | ★ |
| Zuz.: David Mirkin. 123m. AEB. 2001. | **22:30 C+(e)** |
| **Sancion suprema** | ★ |
| Zuz.: John Terlesky. 105m. 1999. | **23:35 ETB2** |
| **Lista cerrada** | ★ |
| Zuz.: Sylvain Guy. 88m. Kan. 2000. | **00:20 T5** |
| **Arco de Triunfo** | ★★★ |
| Zuz.: Lewis Milestone. 127m. AEB. 1948. | **01:05 La2** |
| **Furia en la carretera** | ★ |
| Zuz.: Deran Sarafian. 83m. AEB. 1999. | **02:25 TVE1** |
| **Una chica casi decente** | ● |
| Zuz.: German Lorente. 99m. Esp. 1971. | **03:15 La2** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

**ROMUALD ET JULIETTE**
★★ C+(f) - 10:15

Zuz.: Coline Serreau. Akt.: Daniel Auteuil. 110m. Fran. 1988.

Komedia atsegin eta entretenigarri honek arraza eta giza maila ezberdinetako bi lagunen artean sortuko den amodiozko istorio bitxia erakusten du. Daniel Auteuilek prestijiozko enpresaburu bakartiarena egiten du. Atsekabetuta dago, hainbat arazo pertsonal eta profesionalengatik. Bulegoko garbitzaile beltz jatorrari ez dio sekula jaramonik egin, baina, ustekabean, haren lagun bakarra dela ohartuko da.

**SIETE PISTOLAS PARA TIMOTHY**
★ ETB2 - 18:25

Zuz.: Romundo Giromali. Akt.: Sean Flynn. Fernando Sancho. 84m. 1966.

Sean Flynnek, Errol Flynn mitikoaren semeak, protagonizatzen duen *western* txiki hau Espainian filmatu zuten. Meategi bati egindako eraso basatian bizirik atera den gizon bakarrak beste sei lagun bilduko ditu erasotzaileei mendeku egiten lagun diezaioten. Abentura honek ez dio ezer berririk gehitzen jeneroari, eta Girolami ahaztuak irudimen gutxirekin filmatu izanak arrunta izatea eragiten du.

Ane Muñoz



Najwa Nimry aktorea.

## Calparsororen aurkezpen harrigarria

**SALTO AL VACIO** ★★★ **La2 - 22:35**

Zuz.: Daniel Calparsoro. Akt.: Saturnino Garcia, Karra Elejalde. 100m. 1994.

Daniel Calparsororen (*Guerreros,* 2002) lehen film luzea, baliabide gutxirekin egindako akziozko polizia-film basati, gogor eta bortitza da, ausarta, berria eta oso bitxia. Gidoia, zuzendariak berak idatzia, kaskarra da, desorekatua eta indar gutxikoa. Bestalde, indar handiko irudi ikusgarriz osatuta dago eta, hain zuzen ere, irudiak eta antzezpenak nabarmengarriak dira soinuaren kalitate eskasak kaltetutako film honetan. Najwa Nimri, Calparsororen bikotekide ohi eta musa, sendia mantendu ahal izateko arma trafikatzaile bihurtuko den Alex gaztea da. Nortasun handiko emakumea da, eta kemenez egingo dio aurre bizi duen etsaitasunezko giroak eragindako etengabeko arrisku eta bortizkeriari. Nimri hasiberria gizonezko aktorez inguratua azaltzen da, Karra Elejalde eta zuzendariaren ondorengo lanetan ia ezinbestekoak bilakatu diren Alfredo Villa eta Ion Gabella, tartean.

**EL PERRO SARGENTO**
★ ETB2 - 21:45

Zuz.: Aaron Norris. Akt.: Chuck Norris, Michel Lamar Richards. 86m. 1995.

Chuck Norris gihartsuaren luzimendua baizik bilatzen ez duen polizia-abentura tuntun, zozo eta elementu topikoz jositako hau aktore horren miresleek gozatzekoa da. Reno polizia protagonistaren laguntzailea hil dutenez geroztik, beste laguntzaile bat eskainiko diote. Oso laguntzaile bitxia da, izenburua ikusita erraz asmatuko duzuen bezala.

**COCODRILO DUNDEE II**
★ T5 - 22:00

Zuz.: John Cornell. Akt.: Paul Hogan, Linda Kozlowsky. 105m. AEB. 1998.

Australiako *Cocodrilo Dundee* sail arrakastatsuaren bigarren zatia AEBetan egindako ekoizpen arrunt hau da. Aurreko atalaren arrakasta errepikatu nahia asko igartzen zaio, formula berari eusten baitio hasieratik, ezer berririk erakutsi gabe. Paul Hogan eroak rol nagusia betetzen du berriro. Aktore arrakastatsu horrek atal honetan gidoigile gisa ere lan egin zuen, halaber.

**ARCO DE TRIUNFO**
★★★ La2 - 01:05

Zuz.: Lewis Milestone. Akt.: Ingrid Bergman, Charles Boyer. 127m. AEB. 1948.

Ingrid Bergman ahaztezinak protagonizatutako zuri-beltzeko melodrama fin honek ezinezko amodio istorio hunkigarri bat erakusten du. Charles Boyer eta Laughton handiak izar suediarraren alboan azaltzen dira, E. M. Remarqueren izenburu bereko eleberrian oinarritutako istorio eder honetan. Parisen kokatuta dago, eta, besteak beste, maitasunaz, mendekuaz, bakardadeaz eta laguntasunaz mintzo da.

## ETB-1

**07:10:** Mendeari begira.
**08:15:** Oporrock 2002.
**08:40:** Betizu.
**09:00:** Betimu.
Rocky eta Bullwinkle eta adiskideen abenturak.
Pingu.
Simsala grimm.
Shin chan.
Rocket Power.
Muka-muka.
Kriptako istorioak.
Doraemon, katu kosmikoa.
**14:00:** Gaur Egun. Albistegia.
**14:45:** Betizu.
Shin chan.
Doraemon, katu kosmikoa.
**16:20:** Gagnorarik gabe.
**16:45:** Bidaide.
Basa bizita ikusgai.
Niagara.
**18:15:** 1 bitan.
**19:00:** Oporrock 2002.
**19:30:** Travel notes.
**20:20:** Iparraldearen orena.
**20:28:** Gaur egun. Albistegia.
**21:00:** Kirol berri.
Tourra.
**21:45:** Goenkale.
**22:25:** Pilota: Eskuz Binaka.
Berraondo - Sukia/ Badiola II - Arroyo.
**23:25:** Pilota: Eskuz Binaka
Tittin III - Berna/ Agirre - Lasa III.
**00:30:** Boxeo izarrak.
**01:30:** 1 bitan.
**02:15:** Oporrock 2002.
**02:45:** Gagnorarik gabe.
**03:35:** Esanak esan.
**04:10:** Elkartasunaren bideak.
**04:45:** Euskal Herritik.
**05:10:** Gure familia eta beste piztia batzuk.
**06:05:** Amama sukaldari.
**06:15:** Herri musika sorta.
**06:30:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
**07:30:** Telediario matinal.
Los desayunos de TVE.
Luis Mariñasek zuzendu eta aurkeztutako elkarrizketa saioa.
**09:00:** Canal 24 horas.
**10:00:** Nano.
**11:00:** Cuando seas mia.
**12:00:** Zinema.
**Este cura**
Zuz.: Ernique Carreras.
Akt.: Antonio Garisa, Evangelina Salazar. 1967.
**14:00:** Informativo territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazon de verano.
Anne Igartiburuk aurkeztutakoa magazina.
**15:00:** Telediario 1.
Albistegia.
**16:00:** Eguraldia.
**16:05:** Secreto de amor.
Telesaila.
**17:00:** El manantial.
Telesaila.
**17:45:** Cerca de ti.
**18:50:** El rival mas debil.
Nuria Gonzalezek aurkeztutako lehiaketa.
**20:00:** Gente.
Pepa Buenok eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** The Morancos Chou.
**22:55:** Esta es mi historia.
**02:00:** Telediario- 3. Albistegia.
**02:25:** Zinema.
**Furia en la carretera**
Zuz.: Deran Sarafian.
Akt.: Yasmine Bleeth, Jere Burns. 1999.
**04:00:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**08:00:** Del pais de los vascos.
**08:30:** Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
Los Angeles de Charlie.
**10:05:** Forum.
Gonbidatua: Kebir Sabar.
**10:35:** Loco por ti.
**11:00:** Starsky y Hutch.
**12:00:** Mi destino eres tu.
**12:45:** La cocina de Pedro Subijana.
**13:00:** El principe de Bel Air.
**13:55:** Date el bote.
**14:58:** Teleberri.
Albistegia.
**15:45:** LQF mojate.
**18:25:** Zinema.
**Siete pistolas para Timothy**
Zuz.: Romulo Girolami.
Akt.: Sean Flynn, Fernando Sancho. 1966.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri.
Albistegia.
**21:45:** Zinema.
**El perro sargento**
Zuz.: Aaron Norris.
Akt.: Chuck Norris, Michele Lamar Richards. 1995.
**23:35:** Zinema.
**Sancion suprema**
Zuz.: John Terlesky
Akt.: Michael Madsen, Kristy Swanson. 1999.
**01:20:** Medias de seda.
**02:25:** Esta es mi gente.
**03:15:** LQF mojate.
**05:30:** Forum.
**06:00:** Date el bote.
**06:50:** El mundo de los hongos.

## A3

**07:00:** Oliver Twist.
**07:30:** Megatrix.
Power Ranger.
Blossom.
Campeones hacia el mundial.
Spiderman.
Monster rancher.
Bola Z.
Detective Conan.
Punky Brewster.
Los terribles gemelos Cramp.
**12:30:** Sabrina.
**13:00:** Martial Law.
**13:55:** Desconexion territorial.
**14:30:** Los Simpson.
**15:00:** Antena 3 Noticias 1.
Albistegia.
**16:00:** Sabor a verano.
Yolanda Alzolak eta Antonio Hidalgok aurkeztutako magazina.
**19:00:** El diario de Patricia.
Magazina.
**20:00:** Pasapalabra.
Lehiaketa.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2.
Albistegia.
**22:00:** Verano noche.
Bertin Osbornek eta Mar Saurak aurkeztutako saioa.
**00:30:** Alerta 112.
**01:30:** Antena 3. Noticias 3.
Albistegia.
**02:00:** Pretender.
**02:45:** Televenta.
**05:15:** Canal noticias.
**06:15:** Se ha escrito un crimen.

# irratia

FM
Antxeta Irratia 90.5
Irulegiko Irratia 91.8
Euskadi Irratia 94.4/95.2
Bilbo Hiria 96.0
Herri Irratia 99.8
Bizkaia Irratia 102.5
Gure Irratia 106.6
Xorroxin Irratia 107.5
89.2 Segura Irratia
91.4 Euskalerria Irratia
93.6 Arrate Irratia
95.5 Xiberoko Boza
97.00 Tas-tas Irratia
101.3 France Bleu Pays Basque
103.5 Euskadi Gaztea
107.5 Txolarre Irratia
107.7 Hala Bedi
OM
1224 Herri Irratia

**RADIO EUSKADI.** Gasteizko alkate Alfonso Alonso elkarrizketatuko dute gaur goizean *Boulevard* irratsaioan, 09:15ak aldera. PPk bere hautagaitza ziurtatu du datorren urteko udal hauteskundeetarako. Alonsok Gasteizko Udaleko aurrekontuen inguruan hitz egingo du, eta Batasuneko zinegotziekin izan dituen ika-mikak aipatuko ditu. Ondoren, Bakioko Ardoaren Azokaren berri emango dute. Juan Carlos Erkoreka antolatzailearekin eta txakolin ekoizle batekin hitz egingo dute *Boulevard*-en. Amaitzeko, Felipe Hernandez Cavak Gila umoristari buruz idatzi duen liburua aurkeztuko du. Gorka Andrakak aurkezten duen *Mar de fueguitos* irratsaioan (20:30etik 22:00etara), Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lanaren balantzea egingo dute. Leire Caridad presidente ohia eta Alvaro Marcos presidenteorde izandakoa elkarrizketatuko dituzte erakunde horren gorabeherak zeintzuk diren jakiteko.

**EUSKADI GAZTEA.** Modan dagoen musika jarriko dute goizero bezala *Salgai* irratsaioan. 11:00etan *Gazte enkantua* iritsiko da Lierni Ibargutxirekin. 19:00etatik aurrera, Ainhoa Urkiak gidatzen duen *Galbahe* saioa izango da.